

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

19/2020 Foru Agindua, urtarrilaren 17koa. Deialdia, izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko Europako Gaietarako zebitzuburuaren lanpostua (Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza; kodea 1020.001)

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzako Europako Gaietarako Zerbitzuaren buru lanpostua (kodea: 1020.001) hutsik dagoenez gero, hura izendapen askearen sistemaren bidez betetzeko deialdia iragartzea erabaki da.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeak, 46.1 artikuluan, ezartzen du funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuak lanpostuen zerrendetan ezarrita dagoenaren arabera beteko direla, lehiaketa eta izendapen askeko sistemen bitartez.

Arabako Foru Aldundian indarrean dagoen lanpostu zerrendak ezartzen du Europako Gaietarako zebitzuburuaren lanpostua betetzeko era izendapen librea dela eta euskal administrazio publikoetako karrerako funtzionarioek bete behar dutela.

Aztertu dugu Kontuhartzaitza eta Kontrol Zerbitzuak Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontua Gauzatzeari buruzko Arauan ezarritakoarekin bat etorritik emandako 10 zenbakiko arauen kontrol ekonomikoaren txostena.

Diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundia- ren sailak zehaztu ziren, eta diputatu nagusiaren uztailaren 19ko 345/2019 Dekretuak aldatu egin zuen foru dekretu hori. Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu ziren. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritik, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Deialdia egitea izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko Europako Gaietarako zebitzuburuaren lanpostua (Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza; kodea 1020.001).

Bigarrena. Deialdia arautu behar duten oinarriak onartzea. Horiek foru agindu honi erantsita ageri dira.

Hirugarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua hilabeteko epean, ebazpena hartu duen organo berean. Hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1. artikuluan –urriaren 1eko 39/2015 Legearen, herri administrazioen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. artikuluekin lotuta– xedatutakoarekin bat etorritik.

Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 17a

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

**ERANSKINA****IZENDAPEN ASKE BIDEZKO SISTEMAREN BIDEZ EUROPAKO GAIETARAKO ZEBITZUBURUAREN LANPOSTUA (FINANTZA ETA AURREKONTU ZUZENDARITZA; KODEA 1020.001) BETETZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK.****LEHENENGOA.- DEIALDIAREN XEDEA**

Deialdi honen helburua da izendapen aske bidezko sistemaren bidez Europako Gaietarako Zebitzuburuaren lanpostua (kodea 1020.001; Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza) betetzea.

BIGARRENA.- LANPOSTUAREN DESKRIBAPENA

Sailkapen Taldea / Azpitaldea: A / A1

Destino-osagarriaren maila: 28

Berariazko osagarria: 47.374,35 euro

Lantoki herria: Gasteiz

Dedikazioa: eskusiboa

Ordu prestasuna: 90 ordu

Hizkuntza eskakizuna: 4, derrigortasun datarik gabe

HIRUGARRENA.- BETEKIZUNAK

Euskal Administrazio Publikoetako karrerako funtzionarioa izatea, A titulazio taldekoa (A1 azpitaldea), eta Administrazio Orokorreko edo Administrazio Bereziko Eskalakoa edo horren balioakidekoa izatea, Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz.

LAUGARRENA.- ESKABIDEAK

Interesa dutenek Bigarren diputatu nagusiordeari eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari zuzendu behar dizkiote eskaerak, eta Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean edo urriaren 1eko 39/2015 Legeak, herri administrazioen araubide juridikoaren eta prozedura erkidearenak, 16.4 artikuluan xedatzen dituen bideetako edozeinetatik aurkeztuko dituzte. Horretarako, hamabost egun baliodun izango dituzte, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Eskaera horretan datu pertsonalez gain ondokoak ere jakinaraziko dira:

- A) Ikasketa tituluak.
- B) Nola herri administrazioan hala enpresa pribatuan izandako lanpostuak.
- C) Egindako ikasketak eta ikastaroak eta dakizkien hizkuntzak.
- D) Izangaiak egoki irizten dien bestelako merezimenduak.



Horrekin batera, eskatutako baldintzak eta alegatutako merezimenduak egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu behar da.

BOSGARRENA.- EBAZPENA

Izangaiek aurkeztutako merezimenduak aztertuta,

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak izendapen proposamena egingo dio Bigarren diputatu nagusiordeari eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari.

Izangaiei arteko inor lanposturako egoki jotzen ez bada, deialdia bete gabe utz daiteke.

Esleipena Bigarren diputatu nagusiordeak eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak egingo du, foru agindu bidez.

SEIGARRENA.- AURKA-EGITEA

Oinarri hauek, deialdia bera eta horien ondorio diren administrazio egintza guztiak aurkatu ahal izango dira, urriaren 1eko 39/2015 Legean, herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearenean, ezarritako kasu eta moduetan.